

IRAKURKETA-IDAZKETA:TOKIEN DESKRIBAPENA**Etxea salgai**

Bi solairutako etxea salgai Zumaian, hondartzatik gertu. 10 urte ditu. Oso argitsua da eta bizitzeko oso eroso, oso inguru lasaia kokatua. Jolas-parke bat du bertatik bertara.

Etxe polit honek lau logela eder eta zabal ditu, eta egongela handia. Bi bainugela ditu, bata bainuontzi batekin eta bestea hidromasajedun duxarekin. Sukaldea berri-berria du, oso argitsua, beste gela guztiak bezala. Trastelekua eta garajea ere baditu, beheko aldean.

Etxeak lorategi ikusgarria du aurrealdean, eta, han, sahats eder bat dago. Etxea altzari eta guzti erosteko aukera dago. Altzariak modernoak eta nahiko berriak dira.

**1. ERANTZUN** galdera hauei.

-Zer deskribatzen da irakurri duzun testuan?

-Zein herritan dago kokatuta?

-Zenbat logela ditu?

-Zenbat urte ditu etxeak?

-Zer dago etxearen aurrealdean?

2. LOTU, testuan esaten denaren arabera. Nolakoak ziren?

-logelak

-ikusgarriak

-egongela

-modernoak

-altzariak

-ederra

-lorategia

-handia

-sahatsa

-zabalak

3. **ERANTZUN.**

-Zu bizi zaren etxeak ba al goian deskribatutakoaren antzik?

-Non dago kokatuta?

-Nolakoa da zure etxea?

-Zenbat gela ditu?Nolakoak dira?

4. **IDAZMENA.** Saiatu galdera hauen erantzunekin eta goian dagoen testua eredu hartuz zure etxeiko deskribapena egiten.

